***10*. Irakaslearekin izaten diren bilerak:** Normalean, klasean urte hasierako bileraren ondoren ekiten zaie bileroi. Irakasle bakoitzak bere klasean esango du zein ordu eta egunetan izango diren. Data honen aurretik, irakaslearekin hitz egiteko premia baduzue, deitu Ikastolara eta beste orduren batean geratuko gara.

***11.* "Urtebetetzeak".** Jende guztiari bezala, haurrei ere urtebetetzeak gustatu egiten zaizkie, eta normala da Ikastolan ospatu nahi izatea beren ikaskideekin batera. Kanpoan ospatu nahi badituzue, gonbidapenak irakasleen bitartez ez egitea eskatzen dizuegu, irakasleak ez daitezen inoren aurrean diskriminatzaile ager. Irakatsi nahi ditugun elkarkidetza eta diskriminaziorik eza baloreen aurka dago; beraz, eskatzen dizuegu urtebetetzeak ospatzeko klaseak bukatu bezain laster gonbidatuak bil ez daitezela. Ikasleen "banaketa-sailkapena ekiditearren. Gonbidatuak gelditutako tokira joan daitezke familiako norbaitek lagunduta, geltokira heldu eta gero. Ez dugu haurrak diskriminatuak edo gutxietsiak sentitzerik nahi .

***10.* Reuniones con el maixu o la andereño:** Normalmente comienzan después de realizar la reunión de principio de curso en la clase. Para ello cada profesor comunicará en su clase el día y la hora correspondiente. Si por alguna razón de urgencia necesitaseis hablar con la andereño o el maixu de vuestro hijo/a llamarle para concertar una cita.

***11.* "Cumpleaños"**. A todos/as nos gusta celebrarlos y es normal que el alumnado lo quieran hacer en la Ikastola con sus compañeros/as. Pero las invitaciones a meriendas, en el caso de que las queráis hacer, no se deben tramitar a través del profesorado para evitar que éste aparezca como alguien que discrimina. Este hecho no está de acuerdo con los valores de solidaridad y no discriminación que queremos transmitir. Os pedimos que las citas de los cumpleaños no sean inmediatamente después de terminada la clase de la tarde, con la consiguiente "separación -clasificación" de los niños/as, “los que están invitados y los que no”. Los amigos/as que estén invitados irán a la parada habitual y desde allí les podéis llevar al lugar previsto para la celebración. No deseamos que ningún niño/a se sienta infravalorado ni discriminado.



## A. FUNTZIONAMENDU ARAUAK GURASOENTZAT

Arau hauen zioa Ikastolaren funtzionamenduari buruz egiten dituzuen galdera askori erantzutea besterik ez da. Bestalde, guztiok irizpide berberak izan ditzagun, arau hauek azaltzea egokia dela iruditu zaigu.

***1.*** Ikasleak Ikastolara nola sartu behar diren izango da argitu beharreko lehenengo puntua. Autobusez etortzen badira, autobusaren arduradunek sartuko dituzte umeak Ikastolara. Autobusez ez badatoz, goizez 8:45- 8:55ak bitartean eta arratsaldez 14:45- 14:55ak bitartean Alberdiko atetik sartu ahal izango dituzue. **Ordu horietatik aurrera, Celaya Etxetik sartu beharko dituzue haurrak.**

Atal honen barruan jakinarazi nahi dizuegu **puntualtasuna** ikastolako funtzionamendu egokirako **ezinbestekoa** dela. 2 urteko haurren sarrera ordua hasieran malguagoa izatea ikusten bada ere, ikasturtea aurrera joan ahala, puntualak izatea izango da helburua.

2 urteko haurren gurasoek, ikasturte osoan zehar gelaraino lagundu ahal izango dituzue haurrak eta 3 urtekoak, lehenengo hiruhilekoan zehar. Beste mailetako haurrak atean agurtuko dira eta, gelara bakarrik joango dira. Horrela, ikastolara egokitzen eta beren autonomia indartzen lagunduko diegu.

Zuen seme-alabek, kasu puntualak direla eta, ikastolatik ordutegia amaitu baino lehenago atera behar badute, idazkaritzara joan beharko duzue horren berri emateko.

## A. NORMAS DE FUNCIONAMIENTO PARA LOS PADRES/MADRES

El motivo para confeccionar estas normas no es otro que el de dar respuesta a muchas preguntas relativas al funcionamiento de la Ikastola que muchos de vosotros/as nos soléis hacer y que, por otro lado, nos parece conveniente explicar para que todos tengamos los mismos criterios.

***1.*** El primer aspecto a aclarar es el acceso del alumnado la Ikastola. Si vienen en autobús las responsables del mismo serán las encargadas de introducirles en el recinto de la Ikastola. Si no vienen en autobús podréis traerlos por la valla de acceso al edificio Alberdi de 8:45 a 8:55 por la mañana y de 14:45 a 14:55 por la tarde. **Transcurrido este tiempo deberéis acceder por la puerta principal del edificio Celaya.**

Dentro de este apartado informaros que la **puntualidad es imprescindible** para el correcto funcionamiento de la Ikastola. La entrada del alumnado de 2 años será más flexible, pero el objetivo es conseguir una completa puntualidad a medida que avance el curso.

El alumnado de 2 años podrán ser acompañados hasta el aula durante todo el curso y el alumnado de 3 años durante el primer trimestre. El alumnado de los demás cursos será despedido en la entrada e irán solos al aula. A**sí, les ayudaremos en su adaptación a la Ikastola y en el desarrollo de su autonomía.**

Si por alguna razón puntual, vuestros hijos/as necesitan salir antes de finalizar el horario, debéis pasar por la Secretaria.

***2.*** **“Amantalak”**. Urtero azaltzen den kontua dugu. Ikastolak ez du amantalak erabiltzera inor behartzen. Dena den, komenigarria dela irizten diogu, garbitasunagatik eta arropa ez zikintzeko, baina zuei berdin badizue, gure aldetik ez dago inongo eragozpenik haurrak amantalik gabe etor daitezen.
Bestalde, jantokian gelditzen direnak, amantala ekarri beharko dute.

***3.*** “**Arropa erosoa”** Ikastolara etortzeko. Ahal den neurrian, bereziki 2-3-4 urteko ikasleak badira, erraz erazteko moduko arropak jantzten saia zaitezte. Hartara, umeak berak ikasiko du jantzten eta erazten eta irakaslearen lana ere erraztu egingo da. Ez daukate zertan txandalak izan, tiranterik gabeko beste edozein jantzi ere izan daiteke.

***4***. **Zintzilikatzen den arropetan** (berokiak, euritarakoak, jaka) eta **neguko “osagarrietan”** (lepokoak, txanoak, eskularruak,... ) **ikaslearen izena jarrita ekartzea komeni da.**
Izenak esparatrapuan edo zintzilikatzeko arropak berak daukan zintan idatz daitezke.

***5.*** Ikasle guztiek **ekarri beharko dute autobus-txartela.**

***2.-*** **“Las batas”.** Es una cuestión que todos los años se plantea y sobre la que la Ikastola no tiene un criterio rígido. Es conveniente que las lleven por higiene y para no manchar la ropa, pero si a vosotros/as no os importa este detalle, no tenemos ningún impedimento para que no las traigan.
Por otro lado, los niños/as que se queden en el comedor deberán traer bata.

***3.*** **“Ropa cómoda”** para venir a la Ikastola. En la medida de lo posible, y sobre todo con el alumnado de 2-3-4 años, intentar usar ropa fácil de quitar. De esta manera se le ayuda al niño/a a que aprenda a valerse por si mismo al vestirse y desvertirse y también al profesorado cuando deba hacerlo si el alumnado no lo saben todavía. No tienen por qué ser exclusivamente chandales pueden ser cualquier otra ropa pero evitando, a poder ser, los tirantes.

***4.*** **La ropa que se pueda colgar** (abrigos, chubasqueros, chaquetas,..) y **los “complementos” de invierno** (bufandas, gorros, guantes..) es conveniente que estén **marcados con su nombre.** Los nombres se pueden escribir en esparadrapo o en el caso de la ropa de colgar, en la misma **cinta** que se utilice para ello.

***5***. Todos/as **deben traer la txartela del autobús.**



***6.*** Ikaslea gaixorik jartzen bada, irakasleari jakinarazi beharko zaio. 2 eta 3 urteko ikasleek sarritan, hasiera zaila egiten zaiela eta, “gaixoarena egiten dute” klasera ez etortzeko. Horregatik bada, komenigarria da hitz egitea.
Bestalde, benetan gaixorik daudenean ezin dira Ikastolara etorri, bera hobeto sendatzeko eta besteak ez kutsatzeko.

***7***. 2 eta 3 urteko haurrek, hasieran batez ere, non dauden ez dakitelako edo lekua arrotz egiten zaielako, ez dute komunera joan nahi izaten eta geltokian edo gainean egiten dute txiza. Horrelakoetan, irakaslearekin hitz egin ezazue, adi egon dadin eta umea komunera maizago eraman dezan.

***8.*** Testu liburuak zeuek erosi eta ekarri beharko dituzue Ikastolara umearen izena jarrita. Ez da nahitaezkoa liburuei forrua jartzea. (3 urtetik aurrera)

***9.*** **"Ikastolan aldatzen den arropa".** Arrazoi bat dela bestea dela, litekeena da ikasleek guk hemen utzitako arropa etxera eramatea Hori gertatzen denean, etxera eramandako arropa garbituta eta ahalik eta lasterren itzultzea eskatzen dizuegu Izan ere, ez daukagu arropa gehiegirik hemen eta beti behar izaten dugu.

***6.*** Si vuestro hijo/a se ha puesto enfermo/a avisar al maixu/andereño dando cuenta de ello. Muchas veces los/las de 2 y 3 años, debido a que en ocasiones les resulta algo duro el comienzo, tienen "pequeñas enfermedades simuladas" para no venir y por esta razón es también conveniente comentarlo con el profesorado.
Por otro lado, comentar que cuando están enfermos no pueden acudir a la Ikastola, para su mejor curación y evitar el contagio a los demás.

***7***. Los niños/as de 2 y 3 años, sobre todo al principio, bien por que no los conocen, bien por extrañar el lugar, se niegan a ir al servicio, haciéndose pis en la parada o encima. En estos casos comentarlo con su andereño o maixu para que este al tanto y le lleve al servicio.

***8***. Los libros de texto los deberéis comprar vosotros/as y traerlos a clase con su nombre. No es necesario que estén forrados. (a partir de los 3 años)

***9***. **"Ropa que se cambia en Ikastola".** Por múltiples razones los niños/as pueden llevar a casa ropa que les hemos prestado aquí. Cuando esto ocurra os pedimos que la devolvías lavada lo más pronto posible ya que nuestras existencias no son muy grandes y siempre se necesitan.

**AURKIBIDEA /INDICE**

1. SARRERA-IRTEERA/Entradas y salidas. ..........................................................................................................................

1

2. AMANTALAK/Batas ..........................................................................................................................

2

3. JANTZI EROSOAK/Ropa comoda ..........................................................................................................................

2

4. ZINTZILIKATZEN DEN ARROPA/La ropa de colgar ..........................................................................................................................

2

5. TXARTELA/Txartela ..........................................................................................................................

2

6. GAIXOTASUNAK/Enfermedades ..........................................................................................................................

3

7. KOMUNAK/Servicios ..........................................................................................................................

3

8. TESTU LIBURUAK/Libros de texto ..........................................................................................................................

3

9. IKASTOLAN ALDATZEN DEN ARROPA/La ropa que cambia ..........................................................................................................................

.3

10. IRAKASLEAREKIN BILERAK/Reuniones con los profesores/as ..........................................................................................................................

4

11. URTEBETETZEAK/Cumpleaños ..........................................................................................................................

4

12. ESFINTERREN KONTROLA/Control de esfínteres ..........................................................................................................................

5

13. AUTOBUSA ERABILTZEKO ARAUAK/Normativa de autobuses..........................5

***12.*** **"Esfinterren Kontrola"**: Sarritan, irakasleak eramaten dituen momentuetatik kanpo joan nahi izaten dute umeek komunera, eta horregatik, komenigarria da euren kabuz joaten erakustea. Gomendio hau bereziki hiru urterekin Ikastolara lehen aldiz datozen umeen gurasoei zuzenduta dago.

***13.*** **"Control de esfínteres"** Dado que muchas veces los niños/as piden ir al servicio en momentos diferentes a los que acuden con la profesor/a, es conveniente que les enseñéis a valerse por sí mismos. Esto especialmente se lo recomendamos a aquellos padres cuyos hijos/as tengan 3 años y este año vengan por primera vez a la Ikastola.

***13.*****"Autobusa erabiltzeko arauak"** Edozein arrazoi dela ere, seme/alaben bila etorri behar baduzue, mesedez irakasleari eta autobusaren arduradunari ohar baten bidez abisua eman. Oharra pasatzea ahaztu edotа ezin izan baduzue abisurik eman, seme-alabak autobusera bidaliko ditugu. Autobusaren arduraduna eta irakaslea jakinaren gainean badaude ere, ikusten ez zaituztetela-eta umeak urduri jar ez daitezen, komenigarria litzateke klaseak amaitu baino ordu laurden lehenago egotea zuek hemen.

***13.*** **"Normativa de autobuses"** Si por cualquier motivo tenéis que venir a buscar a vuestros hijos/as, avisar por favor al profesor/a y a la responsable de autobús mediante una nota. Si se os ha olvidado o no habéis podido avisar mandaremos a vuestros hijos/as al autobús. Aunque hayáis avisado a la responsable y al profesor/a, para evitar que los niños se pongan nerviosos al no veros, seria conveniente que vinierais un cuarto de hora antes de acabar las clases.



**OLABIDE IKASTOLA, Koop. Elk.**
**01007 VITORIA-GASTEIZ(ARABA)**
**TEL. 945 011 963**
**FAX. 945 130 250**
WWW.olabide.com
e-mail: posta@olabide.com

OLABIDE IKASTOLA

# OLABIDE IKASTOLAko

# FUNTZIONAMENDU ARAUAK GURASOENTZAT

## NORMAS DE FUNCIONAMIENTO PARA LOS PADRES/MADRES

Curso 2012-2013 Ikasturtea